

IRAKASKUNTZA PROFESIONALERAKO SARBIDE-PROBAK 2020ko EKAINA



COVID-19RA EGOKITZEA

Musikako ikasketa Profesionaletan sartzeko 2020ko maiatzaren 28ko probei buruzko Hezkuntza Berritzatzeko Jarraibideekin bat etorritz, Jesús Guridi Kontserbatorioko Zuzendaritza Taldeak proba horietarako ezarritako egokitzapena jakinarazten du.

ATAL TEKNIKO-INTERPRETATIBOA.....	2
ATAL TEORIKO-PRAKTIKOA.....	4
I. ERANSKINA: PROZEDURA TELEMATIKOA - ATAL TEKNIKO-INTERPRETATIBOA.....	5

ATAL TEKNIKO-INTERPRETATIBOA (PROBA INSTRUMENTALA)

LEHENENGOA: Indarrean jarraituko dute espezialitate eta ikasturte bakoitzari dagokion proba tekniko-interpretatiboaren atal guztiak, hau da, proba instrumentalean, kontserbatorioaren webgunean argitaratuta dauden atalak sartuko dira (eskalak, arpegioak, bat-bateko irakurketa, inprobisazioa, estudioak, obrak).

BIGARRENA: Proba instrumentala aurrez aurre egingo da espezialitate hauetan:

- Baxu elektrikoa
- Kantua
- Klabea
- Kontrabaxua
- Zeharkako txirula
- Kitarra
- Kitarra elektrikoa
- Perkusioa
- Pianoa
- Tronpeta
- Bibolina
- Biola
- Biolontxelo

Salbuespen gisa, espezialitate hauek **telematikoki** egingo dute proba:

- Clarinete
- Fagot
- Oboe
- Saxofón
- Trombón
- Trompa
- Tuba
- Txistu

Jakinarazpen honen **I. ERASKINEAN** espezialitate horietarako prozedura telematikoa azaltzen da. Zalantzarik izanez gero, Kontserbatorioko Zuzendaritzarekin harremanetan jarri: 010131aa@hezkuntza.net

HIRUGARRENA: obren interpretazioa **pianista laguntzailerik gabe** egingo da espezialitate guztietan, proba modu presentzialean edo telematikoa egiten den kontuan hartu gabe.

LAUGARRENA: Atal tekniko-interpretatiboa aurrez aurre egiteko higiene- eta osasun-araudia:

- Hautagaia senide edo irakasle batekin joan daiteke. Hautagaia deialdiko ordutegietan bakarrik sartu ahal izango da ikastetxera. Kontserbatorioko irakasleak sarrerako *hall*-era joango dira harrera egitera.

IRAKASKUNTZA PROFESIONALERAKO SARBIDE-PROBAK 2020ko EKAINA



- Hautagaia NANarekin joango da, eta Epaimahaiari baino ez dio erakutsiko. Partituren kopiarik **ez** zaio Epaimahaiari emango.
- Hautagaiaren eta Epaimahaiaren arteko segurtasun-tartea mantenduko da. Haize eta kantuko epaimahaietan, distantzia hori bikoiztu egingo da.
- Nahitaezkoa da eskuak garbitzea hautagaiak partekatutako tresneria erabili aurretik eta erabili ondoren, tekla eta perkusioko espezialitateetan gertatzen den bezala.
- Nahitaezkoa da musukoa erabiltzea proba instrumental osoa dirauen bitartean (kantu, zeharkako-txirula eta tronpeta espezialitateetan izan ezik).

ATAL TEORIKO-PRAKTIKOA (LENGOAIA MUSIKALA/TEORIA PROBA)

LEHENENGOA: Proba teoriko-praktikoa aurrez aurrekoa izango da atal guztietan eta espezialitate guztietarako.

BIGARRENA: 1go eta 2. mailan sartzeko proba teoriko-praktikoak:

- DIKTAKETA eta ENTZUMENENKO ANALISI atalak aurrez aurre egiteko, hautagaiei hainbat talde/ordutegitako deialdia egingo zaie (deialdiak ekainaren 5ean argitaratuko dira Kontserbatorioaren webgunean).
- ENTONAZIO-ARIKETA, proba instrumentalaren egun berean egingo da hurrengo espezialitate hauetan: baxu elektrikoa, kantua, klabea, kontrabaxua, zeharkako-txirula, kitarra, kitarra elektrikoa, perkusioa, pianoa, tronpeta, biolina eta biolontxelo.
- ENTONAZIOA-ARIKETA, diktaketa deialdiaren egunean egingo da hurrengo espezialitate hauetan: klarinetea, fagota, oboea, saxofoia, tronboia, tronpa, tuba eta txistua.

HIRUGARRENA: 5. eta 6. mailan sartzeko idatzizko proba:

- PROBA IDATZIAREN eta AHOZKO PROBAREN atalak aurrez aurre egiteko, hautagaiak talde/ordutegi desberdinetan deituko dira (deialdiak ekainaren 5ean argitaratuko dira Kontserbatorioaren webgunean).

LAUGARRENA: Higiene- eta osasun-araudia

- Hautagai bakoitzak bere arkatza/goma eta NANA aurkeztuko ditu.
- Hautagaien laguntzaileak ezin izango dira ikastetxera sartu.
- Nahitaezkoa da proba osoan musukoa erabiltzea.

I. ERANSKINA: PROZEDURA TELEMATIKOA ATAL TEKNIKO-INTERPRETATIBORAKO

Egokitzapen telematikoak probaren prozedurari baino ez dio eragiten. Atalak eta edukiak mantendu egiten dira.

LEHENENGOA: Epaimahaiak hautagaiari jakinaraztea:

- Hautagai bakoitzak mezu elektronikoko bat jasoko du, espezialitate bakoitzerako esleitutako egunean eta orduan bertan (ikus azken taula). Bertan honako hauek jasoko dituenak:
 - Hautagaiak aurkeztutako eskalen/estudioen/obren arteko Epaimahaiaren aukeratzea.
 - Bat-bateko irakurmena egiteko materiala.

BIGARRENA: Bideoen grabaketa:

- Hautagaiak bideo bat grabatu beharko du, espezialitatearen eta ikasturtearen arabera, dagokion probaren atal bakoitzeko.
- Bideo bakoitza toma bakar batean grabatuko da: gorputz osokoa, hautagaia eta bere instrumentua ikusteko moduan (ikusmen-oztoporik gabe, adibidez, atril bat).
- Bideoak ediziorik gabe bidaliko dira.
- Obren grabaketa, inolako laguntzarik gabe grabatuko dira.

HIRUGARRENA: Bideoen bidalketa:

- Bideoa Epaimahaiko hiru kideei bidaliko zaie (ikus azken taula), atal bakoitzerako ezarritako denbora-mugaren barruan.
- Bideoak bidaltzeko gomendatutako plataforma WeTransfer da. Atal hori entregatzeko epea amaitzean, Epaimahaiburuak, bidalitako bideo bakoitzaren hartu-agiria bidaliko dio hautagaiari.
- Bideoirik jasotzen ez duen atala, 1 batekin baloratuko da.

LAUGARRENA: Entregatze denborak:

- Eskalak/Arpegiak/Estudioak/Obrak: hautagaiak **3 ordu** izango ditu espezialitate bakoitzerako adierazitako bidalketa-ordutik aurrera.
- Bat-bateko irakurmena: hautagaiak **20 minutu** izango ditu espezialitate bakoitzerako adierazitako bidalketa-ordutik.

IRAKASKUNTZA PROFESIONALERAKO SARBIDE-PROBAK 2020ko EKAINA



GARRANTZITSUA: Bideoak bidaltzeko ezarritako denboran, arazo teknikoren bat izanez gero, ikasketa-buruarekin harremanetan jarriko gara: 647 44 11 06/ 010131je@hezkuntza.net.

TAULA: JAKINARAZPEN EGUNA/ORDUA – EPAIMAHAI/ESPEZIALITATEaren POSTA-HELBIDEA

ESPEZIALITATEA	EGUNA/ORDUA	BIDEOEN HARTZAILEAK
KLARINETEA	Ekainak 15 , astelehena, 17:00etan	e.zabalo@irakasle.eus p.davila@irakasle.eus gutierrezurbaeusa@irakasle.eus
FAGOTA	Ekainak 15 , astelehena, 17:00etan	vicentel@irakasle.eus e.zabalo@irakasle.eus gutierrezurbaeusa@irakasle.eus
OBOEA	Ekainak 15 , astelehena, 17:00etan	vicentel@irakasle.eus p.davila@irakasle.eus gutierrezurbaeusa@irakasle.eus
SAXOFOIA	Ekainak 14 , igandea, 17:00etan	i.crespo@irakasle.eus jsilguero@irakasle.eus gutierrezurbaeusa@irakasle.eus
TXISTUA	Ekainak 14 , igandea, 17:00etan	m.zeberioetxetxipia@irakasle.eus jsilguero@irakasle.eus n.ugartepreciado@irakasle.eus
TROMBOIA	Ekainak 16, asteartea, 17:00etan	j.diezdiaz@irakasle.eus o.castrosanz@irakasle.eus r.oviedo@irakasle.eus
TRONPA	Ekainak 16, asteartea, 17:00etan	o.castrosanz@irakasle.eus j.diezdiaz@irakasle.eus r.oviedo@irakasle.eus
TUBA	Ekainak 16, asteartea, 17:15etan	j.diezdiaz@irakasle.eus o.castrosanz@irakasle.eus r.oviedo@irakasle.eus